



Musika Bandak eta Ozenkik elkarrekin iragarri zituzten Gabonak. Kontzertu berezia eskaini zuen atzo arratsean Musika Bandak, Milagrosan. Gabonak iragartzeko aitzakian, Ozenki abesbatza gonbidatu zuten eta elkarrekin

hamahiru abesti jo zituzten, Imanol Kamio eta Cipri Otxandorenaren gidaritzapean. Milagrosa txiki geratu zen, bi talde hauek elkarrekin ikusteko aukera ez baita egunero izaten. Gaur ere, hainbat ekitaldi izango dira Gabonen bueltan . 2 orrialdea.

GABONETAKO ZOZKETA - Hernaniko Kronika eta Berriak elkarte

Urumea Burdindegia, Antziola Okindegiak eta Irigoien zapata dendak saldu dituzte errifa sarituak

Zenbaki sarituak izan dira: 1goa 0440; 2garrena 2.811; 3garrena 2.556; eta 4garrena 1.114.

GABONETAKO lau saski zozketatu zituzten atzo Hernaniko Kronikak eta Berriak Merkataritza eta Ostalarien elkarteak, Biterin. Aurreneko bi

saski sarituak, 0440 eta 2.811 zenbakidunak, Urumea Burdindegian salduak izan ziren. Hirugarren saskiko errifa saritua Antziola Okindegiak

saldu zuen. Eta azkenik, sari berezia Irigoien zapata dendan saldutakoa izan zen.

Saridunek 943 33 08 99 telefonora deitu behar dute

edo kronika@kronika.net helbidera idatzi, eta izen-abizenak eta telefono zenbaki bat eman. Sariak datorren astean banatuko dira. ||

◆ PALETA

Irazustabarrena eta Arrieta, txapeldun

Nazioarteko paleta tomeoa jokatu zen abendu erdialdean Bilboko Miribilla pelotalekuan, eta euskal selekzioko hiru ordezkarien artean, bi herriak izan ziren: Irazustabarrena eta Arrieta; hirugarren aukeratua Saez Arzamendi paletaria izan zen. Hiru partiduko jokatu zituzten, Txile, AEB eta Argentinaren kontra, eta hiruetan erraz nagusitu ziren. Euskal selekzioaz gain, beste sei herrialdek hartu zuten parte torneoan. /3

◆ ERRUGBIA

Hernaniko zortzi kadete, euskal selekzioarekin entrenatzera

Euskal selekzioak kadete mailako entrenamendua egingo du ostegunean, Donostian. Bertan izango dira Euskal Herriko jokalaririk onenak, tartean, Hernaniko errugbi elkarteak 8. /3

◆ GAZTAIN SALTZAILEA

Gaztain garaia, bete-betean

Manuel Utesak egunero jartzen du gaztain postua Plaza Berrin, eguraldia lagun izan, ala ez. /8

GAUR KRONIKAN

Laburrak /2, 3 eta 8

Jasota bezala:

Andoni Amonarraz /2

Eskelak /2



yaiza

descanso
armarios

2011 likidazioa

Latex eta viscoelastica koltxoiak. Ohe artikulatuak eta motordunak

Koltxoietan lehenengoak gara.

Orain duzu aukera!

Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:30 16:00 - 19:30
Larunbata: 10:00 - 14:00

zure koltxoi denda hernanin

15 urte atsedena eta armairuak neurria zuri eskaintzen

Agustindarren, 6 (Eroski berriaren ondoan) • Tel.: 943 556 201

GABONETAKO EKINTZAK

Zakua karga-karga eginda, badator Ondditik barrena Olentzero

Tarla dantza taldeko umeentzat, Leokan egingo du aurreneko geldialdia. Plazara 18:00etan iritsiko da, umeen gutunak jasotzera.

OPARIAK egin eta egin aritu da olentzero azken urtean, eta Onddi mendia atzean utzita, gaur arratsaldean iritsiko da Hernanira. Lehendabizi, Tarla dantza taldeko umeekin elkartuko da, 17:45ak aldera, Leokan. Eta ondoren, Plazara abiatuko da. Bertan izango ditu herriko txikiak zain, opari zerrenda eskuarteant dutela. Banaka gerturatu, eta gutuna emateko aukera izango dute.



Olentzeroa joan den urtean, Hernanira iristen.

Gau neketsua aurretik

Ondoren, goiz etxeratzea komeni da. Gauerdia baino lehenago oheratu behar da opariak jaso nahi badira, eta zapata garbi-garbi uztea ere ez legoke gaizki, hala topatzea gustatzen baitzaio ikazkinari. Horrez gain, gaueko lan neketsua goxatzeko, ez ahaztu ardo pixka bat eta gozo batzuk zapata aldamenean uztea.

Gabon kantak, nonahi Herriko talde, ikastetxe eta abesbatzak arduratuko dira gaur Gabon gau giroa herrian barrena zabaltzeaz. Goizean, ikastetxeetako umeak ibiliko dira, Olentzero bizkar gainean hartuta, Gabon kantak kantatzen.

Arratsaldean, 17:00etan, Hernaniko Parrokiko abes-

batzak emanaldia eskainiko du Agustindarren elizan. Parrokiak antolatzen du, eta gonbidapena luzatu diete Eguberriari kristau zentzua eman nahi dieten guztiei. 18:30etan, kale buelta egingo dute Kantuz abesbatzakoek. Eta azkenik 20:00etan, Gabon gaueko errondan aterako dira Musika Bandako kideak. ||

❖ **GABONAK**

Olentzerorekin baserriz baserri egin beharreko bidea autobusez egingo dute aurten

Urtero bezala, Olentzeroa baserriz baserri ibiliko da gaur. Zikuñagatik barrena, Elorrabirako bidea egin ohi dute, baina aurten zubia uholdeek eraman dutela kontuan izanda, ezingo dute hala egin. Hori horrela, ibilbidea autobusez egitea erabaki dute. 15:30etan aterako da autobusa Elkano kaleko geltokitik (Biteri ondoan), eta dei egin diete, haur, gazte zein helduei animatu eta bertaratzeko. ||

Txistulariak ibiliko dira bihar, herrian barrena

Alborada antolatu dute bihar Hernani Musika Eskola publikoko txistulariek. Goizean zehar ibiliko dira herrian barrena, txistu doinuak zabaltzen. ||

❖ **EGIN DEZAGUN BIDEA**

Olentzeroarekin kale buelta, gaur

Hernaniko *Egin dezagun bidea* taldeak antolatuta, olentzero kaleetan barrena ibiliko da gaur, 20:00etan. Ondoren, mariskadaren zozketa egingo dute. ||

❖ **KIROLDEGIA**

Gabon bezpera eta egunean, itxita

Kiroldegia itxita egongo da gaur eta bihar. ||

❖ **MUSIKA**

Rockaiet Bodegan, gaur

Rockaiet dj-a musika jartzen ariko da goizeko 01:00etan, Bodega tabernan. ||

❖ **ANBOTO TABERNA**

Mus azkarra jokatu da, gaur

Anboto tabernan mus azkarra jokatu dute gaur, 16:00etan hasita. ||

👉 **Jasota Bezala**

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

180 egun baino gehiago

Agintaldia hasi zenetik 180 egun baino gehiago pasa dira, eta iritsi da zerbait idazteko garaia.

Ekainean, iritsi berritan, Bilduk bertan behera utzi zituen aurreko agintaldian lortutako akordio guztiak. Horrez gain, langile bati aginte postua oparitu eta soldata igo zioten. Bigarren erabakia, aurrezte hitzarekin apainduta, oposizioen dietak kentzea izan zen; eta baita ere liberatutako zinegotzietan bromazko soldatak jartzea. Hirugarren erabakia, aurrezte plana atzean utzita, Alkatearentzat beraiek aukeraturako idazkari bat izendatzea izan zen. Azaroan, aholkulari bat kontratatu zuten Hirigintza departamenturako eta Gobernu Taldeko liberatuen soldata %40 igo zuten,

Alkatearena izan ezik. Azkenik esan, Alkateak oposizioari informazioa banatzeko martxan jarri duen sistemak ez duela ezertarako balio. Dirudienez, ez du ulertzen nire eta bere eskubideak berdinak direla.

Esana zidaten zer sentitzen zen gehiengo osoa duen Gobernu Talde bati oposizioa egitean, baina talde hori osatzen zuten pertsonak ikusitakoan, ez zela hala izango pentsatu nuen; gixaxoa ni. Konturatu naiz politika egiteko era siglek markatzen dutela.

Pentsatu nahi dut 2012a urte hau baino hobea izango dela, eta hernaniar guztiei opa diet Zorionak eta Urte Berri On.

Andoni Amonarraiz Gomez
(*Erredakzioan euskeratua)

Eskelak

† I URTEURRENA
Mikaela Iraola Etxeberria
ANDREA
(Jose Martin Irazustaren alarguna)
2010eko abenduaren 8an hil zen, 96 urterekin
-Goian Bego-
Zure familiak. Maitasunez.
Urteurreneko meza, BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin 2011ko abenduaren 24an
Helbidea: Elizatxo, 60

† I URTEURRENA
Miren Goya Zubiri
2010eko abenduaren 11an hil zen, 88 urterekin
-Goian Bego-
Mirenen senitartekoek urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.
Urteurreneko meza, BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2011ko abenduaren 24an

Joxe Igariz Etxeberria
2004ko abenduaren 25an hil zen, 69 urterekin
eta
Maddi Pikabea Dukas
2011ko urtarrilaren 1ean hil zen, 95 urterekin.
Nahiz eta gure artekin urrutira joan, beti izango zaituztegu bihotzean.
Asko maite zaituztegu.
ETXEKOAK
Meza, **BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2011eko abenduaren 24an

FUNERARIA ORBEGOZO
ERRAUSKETAK
24 orduko tfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

ORBEGOZO
FUNERARIA
TANATORIO · BEILATOKIA

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latsunbe, 7
HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

PALETA - NAZIOARTEKO TORNEOA

Saez Arzamendi, Irazustabarrena eta Arrieta, txapela buruan dutela.

Irazustabarrena eta Arrieta txapeldun, erraz nagusituta

Irazustabarrenak Arrietarekin jokatu zituen torneoko lehenengo bi partiduak, baina finalean Saez de Arzamendirekin aritu zen.

EUSKAL selekzioak nazioarteko pelota torneoa antolatuzuen abenduaren 10-11ko asteburuan, eta paletan, txapeldunak izan ziren, gainontzeko sei herrialdeak baino maila altuagoa erakutsita. Torneoan Euskal Herriak, Argentinak, Uruguaiek, Txilek, AEBk, Mexikok, Venezuelak eta

Australiak hartu zuten parte.

Hirutik bi, hernaniarrak

Aurretik aukeratutako hiru paletarik jokatu zuten torneo, eta horietatik bi, Hernaniko Irazustabarrena eta Arrieta izan ziren. Irazustabarrenak euskal selekzioak jokatu zituen hiru partidue-

tan hartu zuen parte, eta Arrietak aurreneko bietan. Finala berriz, beste aukeratuak jokatu zuen: Saez Arzamendik. Txile eta AEBen kontra erraz nagusitu zen euskal selekzioa, eta finala ere, antzekoa izan zen. Argentinaren kontra 30-6 irabazi zuten. ■

ERRUGBIA**Hernaniko zortzi, euskal selekziara**

Abenduaren 29an egingo den entrenamendurako konbokatu dituzte kadete mailako jokalaria.

EUSKAL Selekzioak Hernaniko zortzi errugbi jokalaria konbokatu ditu selekzioarekin entrenatzera, kadete mailakoak. Entrenamendua datorren astean izango da, ostegunean, Atletiko San Sebastianek Donostian dituen instalazioetan.

11 taldetako jokalaria

Hernaniko jokalariez gain, ondorengo taldeetakoak konbokatu dituzte: Ordizia, Atko S. Sebastian, Bera Bera, Getxo,

HERNANIKO 8 JOKALARIK

1. Agustin Garmendia Vidal
2. Ioritz Gonzalez Barquin
3. Mattin Collado Garcia
4. Beñat Iradi Iturrioz
5. Pello Perez Igarzabal
6. Mattin Mugika Moral
7. Tomax Elorza Izaguirre
8. Mikel Ortiz Arbaizar

Arratiko Zekorrek, Durango, Univ. Bilbao, Uribealde, Gaztedi eta Urrugne. ■

◆ ERREMONTA-BURUZ BURUKO ORONA MASTERRA**Zeberio Urrizaren kontra jokatuko du, buruz buruko aurreneko partidua**

Buruz buruko Orona Masterra aurkeztu zuten asteazkenean Galarretan, eta gaur jokatuko da aurreneko partidua. Zeberio Ilak Urrizaren kontra neurtuko ditu indarrak, arratsaldeko 17:00etan hasita. Eguneko gainontzeko partiduak, hauek: Zulaika-Zubiria/Matxin VI-Saldias; Etxeberria IV-Lizaso/Endika-Ion, eta Matxin III-Zubizarreta/Oñatz-Agirrezabala. ■

gabonetako promozioa !!

EXISTENTZIAK BUKATU ARTE

ibai mendi

Nafar kalea 23 - 943 33 37 24 - Hernani

>> larunbata arratsaldetan ere irekita: 17:00 - 19:30

BEZEROARI ATEAK ZABALTZENwww.ibaimendi.com**on-line salmenta sartu eta ikusi !**

TERNUA
SOFTCELL
FORROA
GIZONA /
EMAKUMEA

LEHEN: 150'00€
89'95€

TERNUA
TXAMARRA
SHELL TEC
PERMEABLEA -
TRANSPIRABLEA
UNISEX
3 KOLORE

LEHEN: 215'00€
129'95€



TERNUA
GALTA
ELASTIKOA
GIZONA /
EMAKUMEA

LEHEN: 110'00€
59'95€



TERNUA
SUDADERA 5 KOLORE

LEHEN: 69'95€
39'95€

SALOMON

ZAPATILA
SALOMON GORE-TEX
GIZONA / EMAKUMEA

LEHEN: 105€
79'95€

**trangoworld**

MOTXILA
3 KOLORE

LEHEN: 40€
29'95€





Carlos López de Ceballosek egindako eskultura jarri zuen Hernaniko Udalak 2006an, fusilatutako gogoratzeko: 'Argi-Horma'.

MEMORIA HISTORIKOA

Herritarren memorian, 75 urte eta gero

Urtea bukatzera dijoa eta Hernanik gogoan dauka, orain dela 75 urteko sarraski hura. 1936an, tropa frankistek 200 lagun fusilatu zituzten Hernanin, irailetik abendura.

ORAIN dela 75 urte pasa zen, 1936an. Irailean sartu ziren tropa nazionalak Gipuzkoan, eta irailetik abendura bitartean, 1.100 lagun fusilatu zituzten. Horietatik 200 Hernanin; eta 13 hernaniarrak. Urte askotan gutxi hitz egin da kontu horri buruz. Hernanik garrantzia berezia izan zuen hilabete haietan, sarraski haundienetakoaren testigu izan baitzen. Hala ere, informazio gutxiago bildu ahal izan da hemengo fusilatuei buruz, beste leku batzuetan baino.

Dena dela, herritarren memoriak ez ditu ahaztu hildakoak. Hernaniko hilerrian plaka bat baino gehiago dago gertaera hura gogoratzeko, eta testigu zuzenak ere asko dira oraindik. ||



Hernaniko hilerrian plaka bat baino gehiago daude, frankismoak hildako pertsonen memorian jarriak.

Brintza **MAPFRE**

ERRETIRO ASEGURUAK - BGAE

LEKU ALDAKETAK
ETA ASEGURU BERRIAK
OPARIA DUTE

Zatoz galdetzera!

www.brintza.com

Brintza, Urbieta, 15 - Hernani - Tel. 943 331 267

* Eskaintza honek bulego honetan bakarrik balio du

AKELENEA
Ertegia - XIX Mendeko Sagardotegian

KoldoetaFina

Eguneko menuak
Kudrilako bazkari
eta afariak
Karta

Egunero zabalik

Oialume Bidea, 57 • 20115 Astigarraga
Tel. 943 333 333

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - T 943 33 15 06

1936ko irailaren 7an sartu ziren tropa frankistak Hernanin. Herrian oso jende gutxi zen, askok ihes egin zutelako, Donostiara, eta handik Bilbora. Hernanin geratu ziren askorentzat, amesgaiztoa izan zen hura. Hernaniko 13 herritar (gutxienez) fusilatu zituzten frankistek, *gorriak* izateagatik, edo antzeko akusazioengatik. Tartean, Angel Arbiza Lasa, Bakero baserrikoa. Eusebia Arbiza alabak gogoan du urte gogor hura, eta batez ere, ondorengoak.

EUSEBIA ARBIZA (HERNANI, 1931):

«Zai gaude, aita noiz azaltzen den»

«ANDOAINEN dagoela badakigu, han fusilatu baitzuten gure aita. Arrastorik ez da azaldu, ordea. Eta horixe nahi genuke azaltzea. Zor digute guri, eta gure amari. Batez ere amari, guk bakarrik dakigu hark zer pasa zituen».

Beste hainbat herritar bezala, Angel Arbiza 1936an hil zuten, frankistek. *Gorria* omen zelako hil zutela dio Eusebiak, beste motiborik gabe. «Jose Antonio Agirrerekin ibiltzen zen, eta horixe izan zen kontua, besterik ez. Aita oso gizon ona zen». Erreketek eraman zutenean, Angelek berak esan omen zien berehala bueltatuko zela.

«Berandu zatoz»

Hor hasi zen amesgaiztoa Eusebiaren familiarentzat. Goizeko 02:00etan etorri omen ziren bi erreketek, eta Biteri ondoko kartzelara eraman omen zuten aita, Atsegindegira. Ama, Joxepa Antonia Gorostegi, hurrengo goizean kartzelara joan zen senarraren bila, eta hango zaintzaileari aditu omen zion, «berandu zatoz». Ama ondoezik bueltatu omen zuten baserrira, karro batean.

Bakero baserria sakeatu egin zuten, sei egun geroago

Amak bakar bakarrik atera behar izan omen zuen familia aurrera. Gainera, senarra hil eta sei egunera, baserritik dena eraman omen zuten. «Berriz etorri ziren sei egunera, dena eraman zuten: ani-



Eusebia Arbiza hernaniarra.

maliak, etxe barruko trasteak... dena. Ezer gabe utzi gintuzten. Dena hankaz gora, leihotik bera trasteak... nere ahizpa txikia, urtebetekoa, maingire artean zegoen ohean, eta hura ere leihotik bera! Grazik, ez zuen minik hartu. Amorratuak zeuden, eta amari galdetzen zioten zerbait, ez dakit zer: *bestela, hil egingo zaitugu zu ere!* Amak, indarra bazuen orduan ere, eta erantzun: *lehengo seme-alabak, eta gero hil nazazute ni ere!* Orduantxe utzi gintuzten pakean. Ez ziren berriz etorri».

Bakero baserria sakeatu eta ezer gabe utzi zituzten. Hutsetik hasi behar izan zuten, bi behi erosteko utzi zioten diru pixka batekin.

Hutsetik hasi

Hurrengo urteak gogorrak izan ziren. Bi behi erosteko dirua eskatu eta ukatu egin zioten amari. Ramon *Amerikanuak* lagundu omen zien, bi behi erosten, eta hortik aurrera, hutsetik hasi ziren berriz. «Ja inork ez zuen laguntzen. Amak baka-

rrik atera zuen baserria aurrera, eta anai zaharrak ere lan asko egin zuen; beste senideak oso gazteak ginen».

«Gogoan dut, egun batean, belarrak ontzen ari ginen, eta hurrengo egunerako euria emana. Anaiak ez ziren plazara joan, *Cara al Sol* kantatzera. Ilea zerora moztu zieten; nik ikusi nuen, ze zakar jokatu zuten beraiekin». Herritarrek orokorrean ez omen zieten ezer txarrik esaten beraiei, baina amari hasieran bai. «Ama askotan etortzen zen etxera negarrez. Anai zaharrak esaten zion: *zer esan dizute? Ama, ez zara gehiago*



Angel Arbiza, Eusebiaren aita.

Angel Arbiza Lasa, 1936an hil zuten, Andoainen, 37 urte zituela. Bakero baserrian bizi zen, eta bertatik eraman zuten bi erreketek, goizeko 02:00etan. Biteri ondoan kartzela txiki bat ba omen zen, Atsegindegi, eta hara eraman omen zuten hasieran. Bere arrastorik ez da azaldu oraindik.

kalera joango! Amak bueltatu egin behar ordea».

Egia esateko beldurrik ez

Eusebiak dio, ez duela inoiz izan beldurrik, egia esateko. Ez du ulertzen zerk eraman zezakeen pertsona gauza horiek egitera, eta uste du, kontzientziko pisu haundia izango duela batek baino gehiagok. «Badakit, gure amari barkamena eskatu ziela herriko zenbaitek. Gure amak eman ere bai. Hark ez zuen gorrotorik, oso bihotz ona zuen. Hala ere, zor digute azalpen bat, eta esperantza daukat, konponbidera iritsiko garela». II

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI



GURE RENOVE PLAN BEREZIAREKIN JARRAITZEN DUGU

%20

ko deskontua gama zuriko etxe tresnetan


Garbigailuak, hozkailuak, labeak, sukaldeak...



ISABEL ALVAREZ (1927, CASILLAS DE FLORES - SALAMANCA):

«Rajoy jauna, non dago nire aita?»

- Isabel Alvarezek 84 urte ditu, eta 8 urterekin galdu zuen aita.
- Antonio Alvarez bi karabinerok atxilotu zuten, 1936ko uztailearen 30ean, eta Ciudad Rodrigoko kartzelan sartu. Geroztik etxeok ez dute haren arrastorik.
- Isabelen anaia ere hilda azaldu zen 1949an, modu nahikoa 'arraroan'. Isabelek dio, politikarien ardura dela, hura guztia argitzea.



Isabel Alvarez 1956an etorri zen Hernanira, 29 urte zituela.

«ANTONIO Alvarez jauna: etxean al zara? Jaitsi zaitez atarira. Segituan ekarriko zaitugu bueltan». Bi karabinerok eramane zuten etxetik Isabel Alvarezen aita, 1936ko goiz hartan, eta Ciudad Rodrigoko kartzelan sartu. Orduz gero, aitaren arrastoaren bila dabil Isabel, eta ez du inongo berririk. Badu, ordea, susmoa, fusilatu ote zuten, antzeko beste hainbat kasu ezagunak baitira Salamancan. Dioenez, politikarien egitekoa da era honetako kasuak argitzea.

Isabel 1956an etorri zen Hernanira, eta orduz gero hemen bizi da. Baditu 84 urte, eta Kronikak eskatuta, frankismoko urteak kontatu ditu. Memoria finekoa izaki, ondo baina tristuraz gogoratzen ditu gaztetako kontuak, Casillas de Flores herrian.

Antonio Alvarez, eta beste 600 kasu

Ciudad Rodrigoko kartzelan sartu zuten Antonio Alvarez Martin jornaleroa, Franco altxa, eta 12 egunera. Ciudad Rodrigoko kartzelatik, ofizialki, urriaren 8an atera zuten. Isabelek dioenez, egun hartan libre utzi izan balute, etxera itzuliko zen. *Kotxe de linea* hartuko zuen etxera itzultzeko. Kontua da jakitea, zer gertatu

zitzeaion hortik aurrera. Isabelek dioenez, oso koordinatua zegoen dena, eta leku jakinean utzi zuten bere aita, beste batzuk joan, hartu, eta betirako desagertuarazteko. «Alkondara urdinekoek egin zuten lan zikin hori; horrela deitzen diet nik. Herritarrak ziren, falangistak. Beraiek eramaten zuten jendea. Horrela, arduradunek eskuak garbi dituzte».

Salamancan 600 pertsona hil zituzten modu extra-judizialean, Salamancako *Memoria y Justicia* elkarteak salatu duenez. Inon ez da ageri pertsona horiek fusilatu zituztenik; soilik, noiz sartu zituzten kartzelara, eta noiz atera handik.

Espainiako Estatuan, 30.000 pertsona desagertu ziren frankismo garaian. Batez ere, 1936tik 1950era desagertu ziren gehienak.

«Falangekoa zen ia herri guztia»

Bere ama hil zenetik, Isabel ia inoiz ez omen da joan Casillas de Flores herrira. Memoria onegia duela dio Isabelek, bere esanetan, oroitzapen txar haiek nahiago dituelako ahaztu. Casillas de Flores herrian jende gehiago ere hil zuten urte haietan. Herriko apaiza, lehengusu baten senarra... asko hil zituzten garai hartan,

Frankismo garaian, Salamancan 600 pertsona hil zituzten modu extra-judizialean.

Espainiako Estatuan 30.000 pertsona desagertu ziren garai hartan, batez ere, 1936tik 1950era bitartean.


eta ondorengoak ere urte gogorak izan ziren. «Herri guztia falangekoa zen. Gu, berriz, galtzaileak ginen, eta hala tratatzen gintuzten. Alkondara urdinekoak herriko oihal dendara sartu, eta nahi zuten guztia eramaten zuten. Gogoan dut, lehengusu bati ilea zerora nola moztu zioten. Apaiza ere hil egin zuten.

Ikusi zutenek diotenez, hil aurretik esaten zioten: *Errezatu, dakizun guztia!*».

Isabelen anaia hilda azaldu zen 1949an. «Gure anaia morroi zegoen, herriko jauntxo baten etxean, eta han azaldu zen hilda. Nagusiak esan zuten, bere buruaz beste egin zuen. Orduan ez nuen sinestu, eta inoiz ez dut sinestuko».

Politikoei mezua

Salamancan lanean ari dira memoria berreskuratzeko taldeak, eta itxura denez, aurkitu dituzte desagertutako gorputz bat baino gehiago. Isabelen aitarenik ez da azaldu, eta esperantza gutxi baldin badu ere, oraindik aita azaldu litekeela dio «ardura daukateneke gehiago egingo balute. Horregatik galdetu nahi diot nik Rajoy jaunari: non dago nire aita?». ||



Antonio Alvarez, Isabelen aita, 1928an.

Antonio Alvarez jornaleroa zen, eta Casillas de Flores herriko alderdi sozialistako kidea. 1936ko uztailearen 30ean atxilotu eta Ciudad Rodrigoko kartzelan sartu zuten, 36 urte zituela. Kartzelako papereke diotenez, 1936ko urriaren 8an libre utzi zuten. Geroztik ez dago haren arrastorik.

Amegar
otxo tresnak - altxaririk

Zatoz!
eta aurkitu
behar duzuna

Hotzgailuak
Izotzgailuak
Labeak
Garbigailuak

Txirrita kalea, 13-15
Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 03

Punta-puntako markak

kixkal
taberna

nagusia, 15
hernani

IRIZAR ARDOAK

La Rioja Alta S.A.
CASTILLO DE MONJARDIN
Barón de Oña
TORELLÓ CAVA
SOLAGÜEN

Telefona: 943 55 10 01 Akarregi, 3c partzela 20120 HERNANI

HEMEN DITUZUE ZENBAKI SARITUAK!



"BERRIAK"
HERNANIKO MERKATARIEN
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

gabonetako
ZOZKETA
2011

Hernanik
kronika

1.114

Irigoien zapata dendan saldua



HERNANI BIDAIAK:

Hotel Villa de Laguardiara eskapada bi lagunentzat. Gau bat + ongi etorriko afaria. Villa Lucia ardoaren zentro tematikora bixita. Bodegaren bixita eta ardo dasketa. Wine oil spa zirkuitua.

2.556

Antziola okindegian saldua

HIRUGARREN
SASKIA



- MARI FE ARRANDEGIA:** langostino kg 1
- KAIXO:** emakume poltsa eta gizonezko kartera
- ZINTZARRI TABERNA:** Marques de Monistrol, cava kaja
- VALEN:** Ume arropa
- ALKORTA HARATEGIA:** paletilla (ezkurrez hazia)
- URUMEA FERRETERIA:** Laban joku bat egurrezko oinarriarekin
- PORTALONDO:** Eskritorioko jokua eta agenda

- NEKANE ESTETIKA:** Rosa Bulgaria gorputz tratamendua
- IBAI MENDI:** Trango motxila bat
- AMEGAR:** Fagor CR18 kafetera
- LEOKADISTI LIBURUDENDA:** 2 LIBURU (bat erderaz, bat euskaraz)
- EZKATI ILEAPAINDEGIA:** ile kortea eta tintea
- DORRONSORO:** Hilabetearen eguneko ogi bat.
- IRIGOIEN ZAPATADENDA:** etxeko zapatilak
- JAIONE KONJELATUAK:** Iberiko lotea



2.811

Urumea burdindegian saldua



BIGARREN
SASKIA



- MARI FE ARRANDEGIA:** xapua
- PELISIMO:** Aurpegi garbiketa
- ARREGI ALTZARIAK:** Koadro sorta bat
- FELI DEKORAZIOA:** alborno bat
- HOKI LENTZERIA:** emakume pijama
- ANTZIOLA OKINDEGIA:** Erregeetako roscoa
- BALANTXA:** MP3 bat
- EZKERRO FRUTAK:** Fruta saski bat
- JAIONE KONJELATUAK:** 2kg langostino

- BIOKBI OPTIKA:** Ray Ban betaurrekoak
- KERA:** Kazadora bat
- ONDDI:** Beronia kiantza ardo kaja
- GALERIAS BUEN PRECIO:** kristalezko koktelera jokua
- NEKANE ESTETIKA:** Rosa Bulgaria gorputz tratamendua
- DORRONSORO:** Hilabetearen eguneko ogi bat.

0440

Urumea burdindegian saldua

LEHENENGO
SASKIA



- MARNA:** Auka markako pultsera eta brotxea, eta Doran Luyren fular bat
- HAIZEA:** 50€ko balea
- BIDEO BALANTXA:**
 - Bazkideentzat: 29€ txartelan
 - Bazkide ez direnentzat: txartela + 29€
- URRATS ZAPATADENDA:** Brako markako botak, emakumezkoentzat
- MARISCOS HERNANI:** langostino 1kg
- KAIXO:** Ume motxila eta aterkia
- MARI FE ARRANDEGIA:** Legatza
- OIHALA:** Frelazko maindire jokoa

- PELISIMO:** Ordubeteko masajea
- ARALAR TABERNA:** Viña Real ardo kaja, bere kopa eta guzti
- ANTZIOLA OKINDEGIA:** Erregeetako roscoa
- JAIONE KONJELATUAK:** Iberiko lotea
- ZINTZARRI TABERNA:** Estrella Galicia 1906 Reserba, zerbeza kaja
- NEKANE ESTETIKA:** Rosa Bulgaria gorputz tratamendua
- DORRONSORO:** Hilabetearen eguneko ogi bat.
- IRIGOIEN ZAPATADENDA:** etxeko zapatilak



Eskerrik asko
parte hartu
dezuen guztioi!!

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauez: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA **GAUR** Goiza laino, eta euri arriskua. Arratsaldean, iparra aldatu eta ekialdeko ikutua hartuko du. Osterteak zabaldu, eta hoztu egingo du. Min.7º / Max.11º
BIHAR Eguzkia eta hotza bihar; neguko eguraldi ederra, kanpoan ibili-zaleentzat. Ia laino izpirik ez, goizeko behelainoak joan eta gero. Min.4º / Max.9º (euskalet)


GAZTAIN POSTUA PLAZA BERRIN - MANUEL UTESA AROZENA:

«Gaztain dozena, eta 13 onak!»

Manuel Utesak goiz osoa pasatzen du amarekin, gaztainari 'hoxkak' ateratzen, arratsaldean bezeroari bakar bat ere txarra ez emateko.

GAZTAIN garaia bete-betean harrapatu dugu Manuel Utesa, Hernaniko gaztain-zalea, Plaza Berriko postuan. Euria goian-behean, eta hala ere lanari utzi ezinda ari da hernaniarra, ondo ezagutzen duen langintzan. Azarotik otsailera, bertan izango du, gaztaina erre dozena nahi duenak. Sarritan, «apaizaren dozena» tokatuko zaio gainera bezeroari; eta txarrik alerik ez. Hortik, bezero batek behin esandakoa: «gaztain dozena, eta 13 onak!». Propinakoa, jakina.

Gaztain txar bat tokatzeak amorrazioa ematen dio bezeroari. Hori da azkena, Utesarentzat, baina arazo hori konpontzeko, lan egin behar. «Gaztain zaku bakoitzak 5 kilo ditu, eta beti etortzen dira 20-25 txarrak. Horiek apartatu egiten ditut nik; eta horretarako lana egin behar! Goiz osoa pasatzen dugu amak (Arantxa) eta biok gaztain bakoitzari *hoxkak* ateratzen». Aitak ere laguntzen omen zion. «Aita (Piter) oso iaioa zen, paperezko kukurutxoak egiten».



Manuel Utesa gaztain saltzailea, Plaza Berriko postuan.

Aurten Avilako gaztaina

Avilako gaztaina ekarri du Utesak aurten. «Gaztainik onena hangoa dago aurten. Jertekoa ere ibili izan dut, baina aurten Avilakoa». Bertako gaztaina ez omen da lehen bezain ona. «Bertako gaztainak gaitza dauka, eta horregatik, gaitz hori harrapatzen ez duen klasea jartzen ari dira; amerikanoa esaten zaiona, edo japonesa. Klase hori da kaxkarrena, jateko». Zortzi gaztain klase behintzat, bereiz-

Utesa: «Orain dela 25 urte hasi nintzen Baztango baserri batean lanean, udazkeno udazkeno. Enaburu baserriko Felipe xaharrarekin asko ikasi nuen gaztainari buruz»

ten ditu Utesak, Baztanen ikasita. «Orain dela 25 urte hasi nintzen Baztango baserri bate-

an lanean, udazkeno-udazkeno. Enaburu baserriko Felipe xaharrarekin asko ikasi nuen gaztainari buruz. Astean 1.000 kilotik gora biltzen genituen, eta urtean zortzi klase behintzat bai, jangarriak: Japonesa (kaxkarrena), San Miguela, Txertagabia, Txertagorria, Ostabeltxa, Bortalaxa, Xarobia eta Beratarra. Jateko onenak, San Miguela eta Xarobia; kaxkarrenak, Japonesa eta Beratarra. Haziendak ere besterik ez zenean jaten zituen horiek». ||



❖ ZINEA BITERIN

Astearte eta asteazkenean, zinea Biterin: 'Kika Superbruja. Viaje a Mandolan'

Zinerik ez da izango asteburuan Biterin, eta horregatik, emanaldi berezia prestatu dute astearte eta asteazkenean, 17:00etan. Gabonetako zinea izango da, gaztetxoentzako: *Kika Superbruja. Viaje a Mandolan*. Disney-k egindako komedia honetan, Kikak bidaia egingo du Mandolanera. Mandolani sorginkeria egin diote, eta norbaiten laguntza behar dute ateratzeko. Kikarentzat erronka paregabea. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pixukide baten bila nabil Hernaniko toki lasai batean dagoen pixua elkarbanatzeko. Ondo komunikatua. Prezioa 280€ + gastuak. Deitu: 616 690 143
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaillea. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Ereñotzuko Toki Entitate Txikia

LIZITAZIO IRAGARKIA

Xedea: Ereñotzu bailarako 3.zenbakian taberna zerbitzua.

Tramitazioa: prozedura negoziatua publizitatearekin.

Eskaintzak aurkezteko epea eta lekua: iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 egun natural, Ereñotzuko Toki Entitate Txikia 9:00etatik 13:00etara.

Agiriak non lortu: Ereñotzuko Toki Entitate Txikia. Tlf. 943 551000 Ereñotzu bailara, 2 eta udal-web orrian (www.hernani.net)

Ereñotzu, 2011ko abenduaren 23a

Imanol Lizeaga Urdanpilleta
Auzo Alkatea

OPARITZEKO IDEIAK

DUBROVNIK Abenduaren 31tik Urtarrilaren 1era
Bartzelonatik hegaldia + 3 gau HOTEL 3* AD **267 €**

LA HABANA Urtarrila
Madriletik hegaldia + 6 gau HOTEL 3* AD **625 €**

BUENOS AIRES Urtarrila eta Otsaila
Madriletik hegaldia + 6 gau HOTEL 3* AD **690 €**

ESTAMBUL + CAPADOCIA Urtarrila eta Otsaila
Madriletik hegaldia + 3 gau PC + 4 gau AD **564 €**

LANZAROTE Urtarrilaren 15etik 22ra
Bilbotik hegaldia + 7 gau HOTEL 4* MP **480 €**

HOTEL BALNEARIO HESPEROA AREATZA 3*
Gau bat AD + Zirkuito Termal **46 €**

HOTEL BALNEARIO PARQUE DE ALCEDA 3* (Cantabria)
2 gau MP + Zirkuito Termal **180 €**

20 urte
Bidaiez bidai,
hernaniarren
ametsak
betetzen!

HERNANI
BIDAIAK

Urbieta, 6
943 33 00 49
hernanib@teletel.es
www.hernanibidaia.com